



# Kimikako graduaren tutoretza jardunerako plana (TJP)

## AITZINSOLASA

2016/2017 ikasturtean hasita, graduako koordinazioak zenbait aldaketa proposatu zuen Kimikako graduaren Tutoretza Jardunerako Planean (TJP), graduako ikasketen batzordea jakitun eta laguntzaile delarik Horren bidez, zerbitzu hau malgutu nahi zen ikasleei begira eta, aldi berean, irakasleentzako zama arindu, hainbat irakaslek hala adierazi baitzuen. Hitz batez, tutoretzaren eraginkortasuna maximizatu gura zen. Helburu honekin, ondoko funtzionamendu eskema proposatu zen, berori ezarri ahala, logikoki, metatutako esperientziaren arabera moldatuz joan beharko dena. Ezer baino lehenago lortu nahi baita lortu beharreko helburua, alegia, gure graduako ikasleei orientatzen lagunduko duen tresna eskaintzea, litezkeen arlo eta norabide guztietan orientatzea, kimikako gradua egin bitartean FCT/ZTFen dauden bitartean.

## FUNTZIONAMENDURAKO ESKEMA

1. Funtsean, zerbitzu hau **Kimikako Gradurako Orientazio Zerbitzu (KGOZ)** gisa arituko da.
2. 2016/2017 ikasturtea baino lehen matrikulatutako ikasleek lehenago TJPrako ezarritako funtzionamenduarekin segituko dute, nahiz eta, hala nahi izanez gero, KGOZ edozein unetan erabili ahal izango duten.
3. Lehenagoko ikasturteetako ikasleen tutore ari diren irakasleek lehengo TJPri dagozkion baldintzetan eskainiko dute tutoretza zerbitzu hau.
4. 2016/2017 ikasturtetik aurrera matrikulatutako ikasleek eta hala nahiko lukeen beste edozein ikaslek gradu edo ikastaroko koordinatzaileen bidez bideratuko ahal izango dituzte egin gura dituzten kontsultak, hauengana jota:
  - a) **GEHIEN BAT**, graduako koordinatzailea: Luis Angel Fernández Cuadrado (luis-angel.fernandez@ehu.eus, 946012723)
  - b) 1. ikastaroko koordinatzailea: Imanol Tellitu Cortazar (imanol.tellitu@ehu.eus), 946015438)
  - c) 2. ikastaroko koordinatzailea: Garikoitz Beobide Pacheco (garikoitz.beobide@ehu.eus, 946012702)
  - d) 3. ikastaroko koordinatzailea: Teresa Arbeloa López (teresa.arbeloa@ehu.eus, 946013970)
  - e) 4. ikastaroko koordinatzailea: Maitane Olivares Zabalandicoechea (maitane.olivares@ehu.eus, 946015504)



5. Ikastaroetako koordinatzaileek graduko koordinatzaileari jakinaraziko dizkiete jasotako eskariak, beroriek modurik azkarren eta eraginkorrenaz adostu eta ikasleei eskatu duten laguntza emateko. Hauetariko bat izan daiteke:
  - a) Graduko edo ikastaroko koordinatzaileak zuzenean ematea.
  - b) beste irakasle bati esleitzea, orientazio eske jasotako eskariari behar bezalako erantzuna eman dakion.
  - c) beste edozein, baldin eta gorabehera modu egokian ebatzen bada.
6. Ikasleren batek nahiko balu, alde biak aldez aurretik adostuta eta graduko koordinatzaileari jakinarazita, tutore iraunkor bat eskatu ahal izango du, graduan dirauen bitartean.
7. Graduko koordinatzaileak artatutako gorabeheren erregistroa osatuko du, ahal den neurrian, KGOZ hobetzearren.